

### **Anhauze (1930-1940): Xurito auzoa**

E.: eta kartier untan, kartier unek oaiko konfigurazionia zien, zein ziren etxeak emen, Xuriton baigira, Xurito kartierrian.

F.: ba, nan emen ez zen, oai ina da... Dena etxez betia da hemen, leen ez zen etxeik, bi etxe zien eta exkerrekaldetik bakarrik, ta oai denak betiak dira, ez da... Ez da lekuik geio etxe iteko re, ez da lekuik, kanbiatiak dira ba, ta nola! Ta nola! Zernai etxe berri inak dira, denak..

E.: ta bi etxe oriek zoin ziren?

F.: nola?

E.: bi etxe horiek zoin ziren?

F.: Garreinia ta Ñiñeina exker zienak, ta geo bazen Enautenia erten zuten, eta, zera zen, nola erten da, putsa, ferratzalia, ferratzalia bazen, Puxulutegi, Xalbat. Harek bazin, geo ua barreatu zuten ta, fin, gero, fini, ez zen geio yeusik izan geio.

E.: orotaat, etxe hunekin, zenbat etxe ziren kartierrian?

F.: zonbat izaiten al ziren? Gue etxea, Atsoainia, Enuxantzenia, Zapatainia, Zapatainia, Enautenia, Ezpondainia, Joanesenia, Patinenia, Karrikaburia... Hamar bat. Hamar bat izan bear zuten. Eskuin, eskuinekaldetik, bestetik ez zen, exkerreko biak, alo.

E.: eta nolako harremanak zitin kartier unek beste kartierrekin? Nola kusiak zinezten ziik hemen? Nolako fama zinuten Zuiton?

F.: bo... Ba, akomaatzen zien ba gazte oriek. Ez beti doaike, ban aba, ba, ba. Akomatzen zien ba, gu asteko ba, emen ginen gazte puxkak, ez baitzen biziki etxe, hiru baginen, iru nexka adinak gu emen, ta gero beste birazkako atzo Garrainiain ziren batzu, killetan artzen ginen igandetan, Bezpetaik landa, ta gero etxeat iluneko, a, olaxet.

E.: zien eskola bazinuten hemen kartierrian?

F.: ez, Anauzen zen, Xuiton ez zen eskolaik, Anauzen.

E2.: Azkaten.

F.: Anauzen bazen eskola, bena gu Azkaten ibiliak gira, urrano baitzen guetako, ba.

E.: ara, ta Aunauzen, bestenaz, eskola bakar bat zen.

F.: ba, ttipiak eta aundiak, bena denak nahies-nahas Azkaten bezala. Ez, Azkaten bazen ttipiena, ta gero haundiena, bana mutiko ta neska denak naas, ba.

**Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna**

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala